

## ERIOZ-DANTZA BILDURGARRIA

Amaika inpernu ba omen dituzte drogazaleak...!

Kartzela-inpernu.

Emagaldukeriaren inpernu.

Salatarien inpernu.

Erremediogabeko gaxoaren ospital-inpernu.

Norbere burua xistenaz apurtzen dituztenen inpernu.

Maitasun-eziñaren inpernu.

Eta danen azpitik, drogarí zor zaion serbitzu-inpernu: onek irteera bakarra du, utsa, ezerreza, norbere buruaren desegitea, aizken-aizkeneko ezbear guzien maillan...

\* \* \*

Inpernu oien mailla guztiak jeizten dituzte drogazaleak.

Banan-banan eta ariñ-ariñ.

Mailla guzti oiek berriro, bere oiñez, igotzeko zeñek izango du indar...?

\* \* \*

Drogaren lenengo okerra, zorabiatzeko bildurra biotzean sortzea da.

Zeren bildur? Droga-ezaren bildur.

Bildur orrek estutzen dio biotza drogazaleari.

Nun eta nola droga billatu...?

Ta, gero, zer?

Lapurretan ekin, lotsarik gabe;

erailketan, bear bada,  
eta ala gertauko balitz.

Ondoren, kartzela.

Ta, gero, zer?

Neure gorputzarekin merkatu egiñ, lotzakizunik gabe.

Neure aragia saldu diru-paperetan.

Ta, gero, zer?

Lagun-urkoa salatu bear bada,  
droga ematekotan,

drogaren truke.

Ta, gero, zer?

Zorabioa, kirio-naaste,  
gaixotasunak, ospitala.

Ta, gero, zer?

Gero eta areago neure burua apurtu  
eta birrindu.

Ta, gero, zer?

Maitasuna saldu, aztu,

biotza legortu,

anima uztu,

borondatea galdu...

Ta, gero, zer?

Aizken maillara eldu:  
lurrean loietan etzanda,

drogaren egarritan,

amesetan,

gose amorratu batean...

Jostorraz-akuilluaren zai,

zorabiozko bildur

eta ikara utsetan.

Beerago eziñ.

Lur-jotago eziñ.

Eriotz muzu-luzea zai.

Gizona, Jainkoa'ren seme,

munduaren errege,

txerrikumeak baiño areago,

lokatzetan leporaño,

ar edo eme

naasian,

aragi illun-orixka,

zuloz zauritua,

zornaz betea...

\* \* \*

Orrek zer-ikusi gutxi

du poesiakin.

Gaitz utsa; ezer onik ez.

Eriotz-dantza zorabioa.

ANES

### JAKIN-EZA

Geure baratzen, zugatz andian  
abar artian ezkutautu  
bere kabia, udabarrian,  
egin dau txori bizkortuak.

Birigarrua, geure laguna,  
geure malluki -zaintzen daunak.  
Marraskilluak, geure areyuak  
jan ta garbitu landar danak.

Lau txorikume dagoz abian,

lumaz estaltzen egotxuak.  
Lazter, bai, Lazter, andiak einda  
abia itxita, juango dira.

Astea igaro. Mundua ikusten  
pozik juan dira txoritxuak.  
Abia utsik. Eztakar amak  
iñorentzako janaria...

¿Ba dakizue ze ikusi dodan  
geure auzo igertegian?

Birigartxua ilda, itota.  
Lenengo egazka, bertan jausita,  
jakin-eziñaz gaixiotxua!

\* \* \*

Euzko gaztedi! Ba zuaz azken...  
¿nori jaramon egin biar?  
Gaztia zara. ¡Oí, jakin-eza!  
Ezta zerua igertegia.

UTARSUS